

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2016/17 Denboraldia

24 ZK. DUN. ZIRKULARRA

LURRALDE SELEKZIOETAKO ARETO-FUTBOLEKO

GAZTEEN EUSKAL KOPA

Batetik, Areto Futboleko Euskal Seleksioen plangintza eta prestakuntza egokia egiteko, eta bestetik, Lurralde Seleksioak lehiakor mantentzeko, Txapelketa hau egingo da, Lurralde Batzordeei jarraiki eta ondorengo arauen arabera.

1. PARTE-HARTZAILEAK

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gazte seleksioek hartuko dute parte.

Bakarrik parte hartu ahal izango dute ondorengo jokalariek:

GAZTEAK: **1991/01/01** baino beranduago jaiotakoak

Seleksio bakoitzak lehiaketan parte hartzeko 15 jokalaria izen eman ahal dute gehienez (aktan idatzita egongo direlarik) klub edo filial berean lizentzia duten 4 jokalaria baino gehiagok ezin direlarik.

2. EGUTEGIA


Vitoria-Gasteizeko Salburua Gizarte Etxean (Bratislava Hir., 2) Ekainak 4an

1. Partida	10.30	ARABA - GIPUZKOA
2. Partida	12.30	1 P GALTZAILEA – BIZKAIA
3. Partida	16.30	1 P IRABAZLEA - BIZKAIA

3. LEHIAKETA SISTEMA

Partida bakarreko liga sistema.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 2 -

Gerta daitezkeen berdinketak Euskadiko Futbol Federakundearen Arautegi Orokorrean ezarritako eran ebartziko dira.

Partida bakoitza bukatzean, edozein dela emaitza, hiru penaltiak jaurtiko dira irabazlea egon arte. Emaitza hau kontuan hartuko da sailkapen orokorrean egon daitezkeen berdinketarekin bukatzeko azken aukera gisa.

Azkeneko partidara heltzen diren selekzioak partida bana irabazita izango balute(3 puntu) ez dira kontutan hartuko aurreko partidetan zenbatutako golak, eta lehiaketaren irabazlea azken honetan irabazten duena izango da.

Partidak 40 minutukoak izango dira: 30 minutuko bi zati, eta 5 minutuko atsedenaldia.

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arautegian xedatutakoa ezarriko da.

3. EGIAZTAGIRIAK

Selekzioen lana errazteko, Lizentziak aurkeztu ordez "zerrenda" bidez egingo dira egiaztagiria. Federazio bakoitzak egingo ditu, eta agertuko diren datuak hauek izango dira: jokalariaren izen-abizenak, dortsala, jaioteguna, NAN eta klubaren izena.

Ezin zaio izena eman partidaren aktan izena emateko zerrendetan agertzen ez den jokalariari.

4. SARIAK

Irabazten duen selekzioari Kopa eta 15 doluminak parte hartzen duten selekzio bakoitzeko.

5. DIZIPLINA BATZORDEA

Diziplinazko kontuak, nahiz txapelketan egon daitezkeen erreklamazioak, Areto Futboleko Euskal Batzordeak lehiaketa honetarako izendatutako Epaileak ebartziko ditu lehen auzialdian.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 3 -

Hala jakinarazten zaie Lurralde Federazioari eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion xedeetarako.

2017ko maiatzak 29, Bilbao

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General